

TXOSTENA

Kontratazio iruzurrak eta prekaritatea ETBn

2018 maiatza

>euskal telebista



Azken urteetan egindako borroka sindikalaren
eta tekniko-juridikoaren emaitzak

#LanDuina #BiziDuina

Sarrera

Prekaritatearen kontrako borroka luzea eta gogorra izaten ari da ETBn, batez ere pairatzen ari diren langileentzat noski. LABek duela urte mordo heldu zion erronkari, luzea eta zaila izango zela jakitun. Halere espero bezala, emaitza positiboak gero eta nabariagoak direla baieztatu ahal izango dugu orri hauetan. Garbiago duguna hau da, **bere garaian borroka honi heldu izan ez bagenio oso bestelako egoeran egongo ginela**: prekaritate, entxufismo, azpikontratazio eta desarautze mailak askoz ere handiagoak izango ziren.

Lan Poltsa objektiboa eta gardenaren beharra

*Lan poltsen
zaintza lana zaila
eta handia da
batez ere
kontratazioetan
egiten diren
iruzur mota eta
kopuru
ikaragarriengatik*

Gogora ekarri nahi dugu 2000 urtearen bueltan lehen erronka estrategikoari heldu geniola, kontratazio lan poltsa objektiboa eta gardena eratzea. Langileon artean adostasunera iristeko zailtasunak eduki genituen, langile batzordeko sindikatuen artean ere, interes propioak... eta elementu horiekin Zuzendaritzarekin akordioa erdietsi behar izan genuen. Testuinguru hartan aipatzea azpikontratazioa neurri handi batean mugatzea eta arautzea ere lortu genuela.

Behin urrats hura emanda, lorpena kudeatu beharra zegoen, eta ez zen askoz errazagoa izan: adostuta zegoen lan poltsa ETBn abian jartzea eta behin abian jarrita, ondo kudeatzea departamentu guztietan. Asko aurreratu dugu eremu honetan, baina oraindik badaude konpondu beharreko akats ugari. Lan poltsen zaintza lana zaila eta handia da batez ere kontratazioetan egiten diren iruzur mota eta kopuru ikaragarriengatik. LABek lan horretan etengabe jarraituko du, batetik konpromisoa eta betebeharra delako, eta emaitzak ematen dituelako bestetik.

LABen esku hartzeagatik oraingoz 41 iruzurrezko kontratu «mugagabe ez finko» bihurtu dira

Esan bezala, kontratazio iruzurrak, langilearentzako prekaritatea ekartzeaz gain, asko zailtzen du lan poltsa garden eta objektiboak zaintzea. LABek azken urteotan ekimen ugari eraman ditu aurrera bai Lan Ikuskaritzan zein epaitegietan. Argi gelditu da **Zuzendaritzarentzat estrategikoa dela arautu gabeko kontratazio mota hau**: ezarri duelako, ez duelako zuzentzeko inolako asmorik erakutsi izan eta zuzentzeko era bakarra bide juridikoa izan delako.

Pertsonal politika hau urteetan sustatu izan zuen arduraduna kalean dago jada. LABek esplizituki, argi eta ozen salatu izan zuen 2003tik 2017ra arte Giza Baliabideetako zuzendaria izan zen Javier Salcedoren jokabidea. Argi genuen ere pertsonaje hau kanporatze hutsa ez zuela konponbide osoa ekartzen, baina norabidea zuzendu ahal izateko ezinbesteko baldintza zela. Kate maila hori bakarrik kenduta egoera, noski, ez da konpondu eta **Zuzendaritzak legeak eta akordioak urratzen jarraitzeko borondatea nabarmena du.**



2016an Salcedo kanporatzea eskatzen hasi ginen: Zuzendaritzari, Batzordean, Administrazio Kontseiluari, Parlamentuari... baita lortu ere!

Sabin Etxearen pertsonal politikari eusten dion hurrengo kate-maila Jesús Elguezabal da, Zuzendari Kudeatzailea. LABen seinalatzen eta erantzukizunak eskatzen jarraituko dugu. Ez dago onartzerik enpresa publiko batean kontratazioan iruzurra egitea erabakitzen dutenek halako inpunitatea izatea, inolako ondorioz ez edukitzea alegia.

LABek Lan Ikuskaritzan eta epaitegietan jarritako norbanakako salaketen ondorioz, edo zeharka salaketa hauek Ikuskaritzan piztutako ekinbidez, **oraingoz 41 langileren egoera** onartezina bideratzea lortu dugula baieztatu dezakegu. Eta «oraingoz» diogu, 41 kasu huez gain ezagutzen ez ditugun bestelako kasurik egon daitekeelako, Madril eta Bartzelonako beste sei kasu bezala. Datu orokorrak azalduko ditugu hemen, kasu kasu zehaztu gabe. Kontratu mugagabe ez finko hiru irregulartasun mota hauengatik behartu dira:

- 13 langilek kontratu merkantila zuten (autonomo faltsoak)
- 12 langilek "artista" kontratua zuten, lan hitzarmenean jasotzen ez den figura.
- 16 langilek gaizki egindako kontratuak direla eta (obra, ordezkapenak, lan pilaketak...)

Salatutako iruzurren hainbat “bitxikeria”

EAEko «oasi ekonomikoaren» kudeaketaren bikaintasunaren saria lortu zuen enpresa publiko «eredugarri» honetan ematen den prekaritate eta iruzur maila norbaiti sinestezina egingo bazaio ere, datu batzuk emango ditugu begiak ireki asmoz:

- Korrespontsalietan autonomo kontratuak egin dira: **autonomoetan altan eman gabe; Gizarte Segurantzaren kotizatu gabe; BEZ (IVA) ordaindu gabe.**
- **Egunkako kontratu mordoak**, horrek dakarren ezegonkortasunarekin: 17 urtetan adibidez hiru langilek 600, 1.000 eta 1.300na kontratu.
- Gizarte Segurantzari egindako iruzur bikoitza: erakunde berari eta langileei **7 lan egunengatik bakarrik 5 kotizatu** izan zaielako. Hemengo langileei **pentsoetan egindako lapurreta** ez da kasu honetan Madrilen errua.
- 8 langileri ia **milioi erdi euroko kalte-ordaina** ordaindu zaie. Langile hauek lan poltsan daudenez kontratatzen jarraitzen du enpresak.
- Diru kopuru horrez gain, **kanpoko zerbitzu juridikoen gastua**, ez dela txikia izango.

Arazoa ez da berez konponduko... ala akaso bai?

Arestian aipatu bezala, besoak gurutzaturik gelditu ezker egoera ez da berez konponduko, Zuzendaritzaren asmoa ahal duen neurrian akordioak eta legeak saihestea delako. Horren beste froga bat Bizkaiko eta Gipuzkoako **Lan Ikuskaritzetan LABek sartu berri dituen salaketak hil, erretiroa hartu edo bestelako arrazoiengatik sortutako plaza bakanteak** bete nahi ez dituelako.



Batzordeak egindako bakanteen salaketaren epaiketan elkarretaratu ginen

Baina hori ez da borondate faltaren zantzu bakarra, izan ere kontratazioetan gehiegikeriak ematen dira oraindik. Bilboko Euskal Telebistako ustiapeneko kontratazio datuak aztertuta, oso ondorio argigarriak agertzen dira:

2017	Kontratu kopuruak	Kontratazio egunak	B.B. egun kontratuko	
ORDEZKAPENAK				
Produkzioa	50	466	9,32	<ul style="list-style-type: none"> • laz batez beste 4 eguneko 2.067 ordezkapen kontratu egin ziren
Erredakzioa	493	2519	5,11	
Ustiapena	517	2067	4,00	
Errealizazioa	106	990	9,34	
Besterik	83	1795	21,63	
GUZTIRA	1257	8584	6,83	
LAN PILAKETAK				
Produkzioa	82	308	3,76	<ul style="list-style-type: none"> • Lan pilaketen kasuan batez beste 1,95 eguneko 1.838 kontratu
Erredakzioa	278	1362	4,90	
Ustiapena	943	1838	1,95	
Errealizazioa	71	255	3,59	
Besterik	30	1100	36,67	
GUZTIRA	1404	4892	3,48	

Zuzendaritzak ez du bere borondatez konponduko egoera, baina Euskadiko Auzitegi Nagusiak LABek egindako salaketa bati emandako epai zehatz eta erabatekoak asko zuzenduko du egoera. Epaiak dio **oporren eta librantzen ordezkapenak estrukturalak direla**, beraz ezin direla lan pilaketen bidez gehiago egin, eta langile egitura handitu egin beharko da ezinbestez.

Erredakzioan azken urteetan kontratazio kopuruak jaitsi dira, baina neurri handi batean LABek lortutako erregularizazioengatik, aldizka egiten ziren kontratu ugari dagoeneko mugagabe ez finko bihurtu direlako.

Bide juridiko luzearen bestelako emaitzak

Asko lortu dugu LABek eta salaketak jartzera animatu diren langileek. Baina aipatu ditugun norberaren eta kontratazio sistemaren egonkortasun, gardentasun eta objektibotasunean egindako aurrerapausez gain, ondorio gehiago ekarri dituzte bide luzean izandako epaiek:



- Aipatu bezala, oporren eta **librantzen ordezkapenak estrukturalak direla** adierazi du Auzitegi Nagusiak.
- Sententzia guztietan argi gelditzen da **ETBn ezin dela lan pilaketa kontraturik egin**. Aukera bakarra hauteskunde garaian da, erredakzioan.
- Erredakzioko arlo buruen **sententziak gestore sistema bertan behera uzten du de facto**, egiturako lanak etxeko langileek egin behar dituztelako (Zuzendaritzak Madrilgo Auzitegi Gorenean jarritako helegitea galdu berri du gainera).
- **Obra kontraturik ezin da egin**, estrukturakoak ez direnak ezik. Hots, adibidez kazetari bati ezin diote albiste baten jarraipena egiteko obra kontratu bat egin, eginkizun hau dagoeneko hitzarmenean jasota dagoelako, eta kontratu arrunta eskatzen du honek.
- Ordezkapen kontratuetan, **baja, eszedentzia edo dena delakoagatik, funtzioaren kate osoa jaso behar dute**: Nork egiten duen noren ordezkapena, eta nork egiten duen ordezkatuaren lana. Azken urteetan ETBko kontratazioetan modu generikoan edo anbiguoan agertu izan dira ("ordezkapena", "%83 ordezkapena" gehi zehazten ez diren lan pilaketak...).
- **Enpresarekin lotura ez da hausten**. Kasu batean 14 kontratuen lotura onartu da, nahiz eta urte batean 32, 70, 90... eguneko etenak egon.
- Errelebo kontratuak: Errelebistari gutxienez kotizazioaren %65a ordaindu behar zaionez, kontratua goragoko mailako langile bati egin behar zaio. Honek **beheko mailetan errelebo kontratuak egitea eragozten du**.

LABen irakurketa sindikala

Azalpenen zehar dagoeneko hainbat iritzi eman baditugu ere, batzuk bergogoratu eta beste azalpenen bat jasotzen dugu sintesi honetan:

- Azaldutako guztia **LABen ekimenaren ondorioa** izan da. Langileek gugana jo dutelako, edota ekimena geuk abiatu dugulako. Lan poltsetako goiko postuetatik abiatuta, gure iritzi plaza horiek estrukturalak direlako. Honek ez du kendu, eta ez du kentzen, beste edozein langilek bere egoera ere salatu nahi badu, gure ateak irekita dituela eta gogo handiz elkarri lagunduko diogula.
- Bidegabekeria eta prekaritate honekin ETBk **dirua aurreztu baino, langileen ordutegiak eta lanaldiak malgutzea** bilatu du. Langileen eskubideak zapalduz, eta Lan Hitzarmena eta legeria bera urratuz.
- Egindako lan guztia eta lortutako emaitza guztiak langileentzako onuragarriak izateaz gain, **langile egituraren negoziazioan erabateko eragina** du. Langile Batzordeak eta Zuzendaritzak abiatu beharko duten negoziazio horretan hurrengo urteetarako ETBren langile egitura zein den zehaztuko da, eta behin betiko lanpostuak deialdi publikoaren bidez beteko dira.
- **Gestore sistema de facto bertan behera** gelditzen da. Epai batek argi utzi du dagoeneko funtzioen zehaztapenetan jasota dauden lanak egiteko ezin dela kanpo-kontrataziorik egin, bertako langileekin egin behar dela, ETBren lan hitzarmena eta bere lan baldintzak errespetatuz. Auzitegi Gorenaren erabakia ezagutu aurretik ere, eta berdin zein ebazpen ematen zuen, LABek argi utzi izan dio Zuzendaritzari langile egitura gurekin negoziatu nahi badu, jestore sistema bertan behera gelditu behar dela.
- **Salcedo botatzea lortu dugu**, baina arazoek jarraitzen dute (gestoreen "taifa erresumak", kanpoko ekoizleen exijentziak...)
- **Zuzendaritzak ez du bere ekimenez urratsik emango**. Legez kontra ari dela badaki (%5a bezala), eta legeak eta sindikatuak sobratzen zaizkie.
- Ekintza sindikalarekin, eta epaitegietan edo Ikuskaritzan lortu behar izan da dena, sententziaz edo aurretiko akordioez. Zuzendaritzaren aldetik konponbiderako inolako borondaterik ez da egon, eta ez dago. Ikuskaritzak aztertutako postuetan irregulartasunak zuzendu dituzte, **baina lan handia gelditzen da, batez ere Teknika Operazionalan**.
- **Aurrekontuen langile egitura ez da nahikoa**, ez dator bat Euskal Telebistak dituen beharrekin. Ordezkapenak egiteko langile egitura handitu behar da ezinbestez.
- Kontratazioaren iluntasuna langilea esplotatzeko tresna dela argi dago. Kanpoko kontratazioak bi arazo nabarmen ditu ETBn: bertako **langileen funtzioak hustu, batez ere Miramongo produkzio zentroan**, egituraren eraginez; eta ETB komunikabide publikoa den heinean, **prekaritateak eta kanpoko kontratazioak erredakzioaren kontrolerako tresnak** ere badira.

Azken finean, emaitza eta ondorio hauek eta gehiago (soldataren %5aren murrizketa etetea eta kendutakoa berreskuratzea adibidez) azken urteotan LABek egindako ekintza sindikalari eta tekniko-juridikoari esker lortu dira. Berrero diogu, **irregulartasunak antzematen dituen edozein langileri bere eskubideak babesteko gure laguntza emateko prest gaude**, eta horrela norbanako salaketa gehiago izango direlakoan gaude. Buru batek langile bati «salatu baino, lan egiteagatik eskerrak eman beharko zenituzkeela» ohartarazpenaren adibideak bikain laburbiltzen du Zuzendaritza osoaren pentsaera.



lazko maiatzaren 1ean ere EITBren herri-izaera aldarrikatu zuen LABek

Halere duela aste batzuk dagoeneko hurrengo ekimenaren berri eman genuen, **Bizkaiko eta Gipuzkoako Lan Ikuskaritzetan heriotza edota erretiroagatik bete gabe dauden 66 lanpostuak bete ez izana (48 Bilbon eta 18 Miramonen)**. Bizkaiko Lan Ikuskaritzak inhibitu da, eta Gipuzkoan hartuko den erabakiaren zain gaude gaur oraindik. Erabaki berdina hartuko balu ibilbide juridikoa EAEko Auzitegi Nagusian geldituko zen. Kontua da bere garaian ELA izan zela txandaz Langile Batzordearen izenean salaketa jarri zuena, eta hain zuzen bera da sententziaren exekuzioa eskatzeko esku hartzea duena. LABek dagoeneko bide hau aktibatzen eskatu dio, eta bidelagun izaten jarraituko genuke.



@labeitb – <https://eitb.lab.eus>